

## Zirriborroa

Oharra, azalpena:

Hausnarketarako gidoiko zenbait puntu garatu ditugu Lan Taldeko kideek; eztabaidarako lagungarri izango delakoan.

Ez da erredakzio borobila, zirriborro moduan dago eginda eta gora-behera asko ditu, baina...

Gainera ez daude gidoiko puntu guztiak garatuta, erredakzio lanetan aritu garenak zenbaitetan ez baikenekien zer jarri beste norbaitek proposatu zuen titulu horren atzean

Hala ere... laguntza bat izan daitekeela uste dugu

On egin

SARRERA (justifikatu, dokumentuaren zergatia, kokapena...)

### **Diskurtsoa landu, zergatik? Azken urteotan gizartean izandako aldaketak (demografikoak, eskolarizazioa, globalizazioa, subjektibitate soziala...) eta euskalgintzan pilatutako esperientzia**

#### **Azken urteotan egoera asko aldatu da; garai konplexuan bizi gara:**

Ikasleriaren aniztasuna erruz areagotu da eta hezkuntza-xede eta -eskakizun anbiziosoagoak proposatzen zaizkigu. Horren ondorioz, erronka berriak (erronka ugari batera) ditugu eta gainera, ez dugu horren argi "haizeak" aldeko noranzkoan eta indar nahikoaz jotzen ote duen Egoera honetan, horrenbeste "erronka berri" eta "lehentasunezko ildo"ren artean, euskararen ezagutza eta erabilera **lausotuta** geratu direla dirudi; gure hezkuntza sistemaren erronka nagusienetakoa izaten jarraitzen badute ere (gizarteak eta legediak eskolari ezarritako helburuak ikasle guztiakin oraindik ez baititugu lortzen). **Ezinbestekoa iruditzen zaigu eskolen agendan, lehen mailan, berriz ere agertzea**

#### **Ikasitakoa**

Bestalde, Ibilbide luzea egin dugu, bai guk eskolan eta bai euskalgintzak orokorrean. Esperientzia hartu dugu. Ondorioak atera ditugu. Gure eginkizuna irudikatzeko begirada aberastu, eta irizpide sendoagoa eta interpretazio-eskema argigarriagoak ditugu.

- Urteotan asko aurreratu eta ikasi dugu. Azterketek eta ikerketek hainbat gako argitu dizkigute. Badakigu zein baldintza behar diren Euskarazko Gaitasun nahikoa lortzeko, nolako bilakaera izaten duen eskolan euskararen erabilerak (eta bilakaera hori zeren arabera izaten den), zeintzuk diren gazteen erabileran eragiten duten faktore nagusiak (faktore asko eta askotarikoak direla, erabilera fenomeno konplexua dela)
- Adituen ikerketek eta hausnarketek egoera eta lana irudikatzeko/azaltzeko erreferentzia landuagoak eskaini dizkigute

#### **Euskalgintzan diskurtsoa eguneratu beharra (egungoa agortzea) eta ahots bilakaera**

Aldaketa horien guztien kontzientziak hainbat galdera ekarri dizkigu burura: orain arte baliatu dugun diskurtsoa ez ote zaigu hankamotz gelditu? Eguneroko lanerako pista onak ematen al dizkigu? Nahikoa zehatza eta esplizitua al da ala etereo samarra? (Zenbait ideia indartsu edo lelotara mugatua???) Horretan oinarritutako adostasuna sakona eta sendoa al zen ala azalezkoa, itxurazkoa...?

Honelako galderak ez zaizkigu eskolan bakarrik sortu. Azken hilabeteotan diskurtsoa osatzeko eta eguneratzeko beharra aipatu dute euskalgintzako erreferentziazko pertsona eta talde ugari (Pertsonak: **Iñaki Martínez de Luna...** Erakundeak: **Topagunea Zita ekarri**, EHE, **SL klusterra...**)

...

Beste hainbat ahots

"Konturatu ginen defentsa mekanismoak kendu gabe, eraikuntza mekanismoak martxan jartzeko garaian geundela" Unai Larreategi (EHE). Argia, 20102-03-04

*Orain dela bizpahiru urtetik dator hau dena, gure diskurtsoa analizatzen hasi ginenetik. Garai batean, hizkuntza eskubideak aldarrikatzea, defendatzea, zen kontua. Ordea, konturatzen hasi ginen defentsarako, salaketarako, borrokarako diskurtsoa, edukiak eta tresnak genituen bezala, jendearen hizkuntza ohituretan eragiteko garaian hutsuneak zeudela. Zer transmititzen genion guregandik gertu zebilen euskaldunari, euskaraz bizitzeko izugarrizko grina zuenari, eguneroko bizitzarako? Aktibo egon behar ginela bai, baina aktibo besteekiko, eskatzeko, aldarrikatzeko... Konturatu ginen defentsa mekanismoak kendu gabe, eraikuntza mekanismoak martxan jartzeko garaian geundela. Hizkuntza Eskubideen Eguna egitetik Euskaraz Bizi Egunera pasa gara.*

Eta gure artean ez ezik, Galizian eta Katalunian ere egin dira ikuspuntua eguneratzeko ahalegin interesgarriak

### **“Diskurtsoa” esaten dugunean, zertaz ari gara?**

Ez gara esakune-segida hutsaz ari. Baizik eta...

- **Begiradaz**, bizipenaz, irudikapenaz, azalpenaz. Interpretazio-eskemez (Betaurrekoaz). Geure buruari egiten diogun narrazioaz.
- Nahi eta egiten duguna (eskola- eta gizarte-egoera zein gure rola eta eginkizuna) bizitzeko eta irudikatze eraz

Diskurtso honek, gainera, irudikatzeaz eta azaltzeaz gain, geure begirada eta jokabidea preformatu (forma eman, baldintzatu...) ere egiten du. Gure jardunbidea (zer eta nola egiten dugun) orientatu.

Diskurtsoak argitu behar digu: **zer, zergatik eta zertarako** ari garen. Hori argi eta zehatz definitzeak lagunduko digu ikastetxe barneko adostasuna (sektore eta eragileen arteko elkarlana) arrazoi konpartituetan oinarritzen.

### **Eskolako saiakeren mugak**

Eskolak asko egin dezake ikasleen euskalduntzean. Hala ere, dena ezin dezake egin. Bere mugak ditu Fishmanek ongi azaldu zuen bezala. Eskolaz gain, familia giroak, gertuko auzo giroak etab. sekulako eragina du euskalduntze prozesu horretan. Hori kontuan hartu beharko da aisialdia etab. eratzekoan. (VI SL jardunaldiko **zitaren bat ekarri** -ARRUE-)

*Eskolatik kanpora euskarak ezer gutxitarako balio duen ingurumenetan, hortaz, oso aldatz gora egiten zaio eskolari bertako ikasle zaharrenengan (nahiz eta halako euskara-maila bat dagoeneko eskuratua izan) eragin eta gazte horiek, gelatik atera ondoren, beren artean eta gainerako harremanetan euskaraz egiten jarrai dezaten segurtatzea edo, soil-soilik, bultzatzea. (Mikel Zabide, 2002)*

Ala

*Orain badakigu, 1977-82 urtealdian ez bezala, eskola-bide hutsak ezin duela bere baitarik eta bere hutsean, eredurik euskaldunenaz ere, belaunaldi berriaren mintzajarduna nabarmenki modifikatu, are gutxiago itzulipurdikatu. Hizkuntza ahula indarberritzeko aurrebaldintzak jar ditzake eskolak, eta oso kontuan hartzekoak dira horiek. Eskola-saio horren ekarpena baino mila bider konplexuagoa da ordea mintzajardunaren gizarte-moldaera, eta konplexutasun horretan jotzen da gure neska-mutilen eta gazte-jendearen euskarazko jardunaren atzera-aurrera. Politago litzateke, jakina, besterik esan ahal izatea. Baina horrela dira gauzak, dakigun neurrian, hemen eta hemendik kanpora: (Mikel Zabide, 2010<sup>1</sup>)*

### **Eskola eta ikasleen euskalduntzea, lorpenak, mugak eta irakaspenak.**

**Edo Mikel Zalbideren zitaren bat**

Ikerketa Soziolinguistikoek erakusten dutenez azken 30 urteotan asko igo da euskararen ezagutza EAEko haur eta gazteen artean. Egun haur eta gazte gehienek badute euskararen gutxieneko gaitasun maila

Gazte horietako bi herenek eskolan lortu dute daukaten euskarazko gaitasun hori

---

<sup>1</sup> “Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskolako alorreko biakaera: balioespen-saioa” 127-128 or

Hala ere lortzen ari garen emaitzak mugatuak dira, ikasleria guztiarekin ez da lortzen legeak ezarritako helburua<sup>2</sup> (jaso)

Hezkuntza Sailaren barne-ebaluazioek lorpenei eta mugei buruzko hainbat datu argigarri utzi dituzte agerian

- Hizkuntza ereduen eragina.
- Familia hizkuntzaren eta gizarte-ingurune hurbilean euskararen presentzia-erabilera mailaren eragina

Kezka iturri

- Gaitasun maila txikiena lortzen dutenak lotuta
  - Hizkuntza-eredu ahulenekin
  - ISEK maila baxuenekin (edota goi-mailako sektore jakin batzuekin)

Egungo egoeran eskola ez da betetzen ari (egoera guztietan eta ikasle guztiekin) gizarteak eta legeak eman dioten ardura. Ez du betetzen euskal gizartearen gizarte-kohesioarako eta integrazioarako bete beharko lukeen funtzioa. **Herritar guztiek euskara (ere) jakitea gizarte-kohesiorako baldintza baita, eta euskaraz ez dakiten gazteak “gizarteratzea” kohesiorako eta elkarbizitzarako oztopoak mantentzea litzateke. euskaraz ez dakiten gazte horietako asko<sup>3</sup> segregazioarako bidean jartzea (integrazioarako baliabide guztiak eman beharrean)**

### **Diskurtsoaren izaera dinamikoa**

Diskurtsoa beti izan da dinamikoa. Garai bakoitzak, belaunaldi bakoitzak bere ikuspegiak, diskurtsoak landu izan ditu. Aurrekoengandik jasotako ikuskerak, gizarte baldintza aldakorren arabera aldatzen joaten dira. Lehengo ideia eta ikuspuntuak birformulatu edota berriak sortzen joaten dira gizartean ematen diren aldaketetara egokitzeko. Euskararen kasuan ere, gauza bera gertatzen da. Eskarmentuak eta ikerketa ezberdinek esaten digutena kontuan hartuz, hala nola hitzun berrien jarrera, portaera eta jokaera ezberdinek gure ikusmoldeak eta egiteko erak etengabe egokitzen behartzen gaituzte

Orain arte indarrean izandako diskurtsoaren ideiak, presupuestoak, paradigmatik...

#### **Hizkuntz eskubidea.**

Gizaki orok du bere hizkuntzan jarduteko eta berau lantzeko eskubidea. Eskubide horiek lege babesa izan behar dute eta eskubide hori egikaritzea ahalbideratu behar diote hiztunari.

#### **Erakundearen betebeharra.**

Erakundearen betebeharra da hiztuna babestea eta bere hizkuntzan bizitzeko aukerak eta bitartekoak ematea. Hizkuntza gutxiagotuaren kasuan, askozaz beharrezkoagoa da erakundearen betebehara hori, gutxiagotutako hizkuntza hori berariaz zainduz eta bultzatuz.

#### **Errespetua euskaldunarekiko**

Euskalduna bertakoa izanik, errespetua zor zaio eta horregatik beharrezkoa da denok euskaraz ikastea eta egitea.

#### **Edukazioa onagatik eta bestearekiko errespetuagatik**

Bi diskurtso kontrajarri egon daitezke hemen. Batetik, euskaldunak bertakoak izanik, zor zaien errespetuagatik euskaraz egin beharko litzateke eta horretarako neurriak hartu. Bestetik, denok ez dakigunez euskaraz, ez dakienarekiko errespetua eta edukazio onarengatik besteak dakien, guztiok dakigun, horretara makurtzea da errespetua. Azken hau da gizartean indartsuena agertzen dena.

#### **Hizkuntza propioa, gure hizkuntza, berezko hizkuntza**

Euskara da gure herriko hizkuntza, betidanik hemen egon dena, herri honek berezkoa duen hizkuntza bakarra, gurea, propioa, herri bezala ere, izena ematen diona.

<sup>2</sup> “Derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatzea” (EEN legea, 17. artikulua)

<sup>3</sup> Ebaluazio diagnostikoko emaitzek argi erakusten dute euskarazko ezagutza ahulena lortzen duten ereduaren ISEK maila baxueneko ikasleak direla nagusi

## **Integraziorako bide**

Gaur egun euskara jakitea Euskal herrian integratzeko bide da. Euskal hiztun komunitatean integratzeko eta gizarte honetan modu egokian txertatzeko, sozialki onartua izateko eta aukera berdinak izateko, ezinbesteko da euskara jakitea.

### **Hizkuntza zaharra, galtzeko arriskua, erabili ezean galdu egingo da.**

Munduan den hizkuntza zaharrenetakoa izateaz harro gaude. Sekulako altxorra daukagu eskuartean. Hala ere, mendez mende jaso dugun altxor hori galzorian egon daiteke gaur egun. Ikastea eta erabiltzea ezinbestekoak dira hizkuntza hori indarberritzea nahi badugu. Ardura era erantzukizuna jartzen dira gure gain.

### **Kosmobisioarekin lotura, mundu magikoa, "lege zaharra"**

Euskara sarritan mundu ikuspegi jakin batekin lotu izan da. Aspaldiko garaietako ohiturekin, ikusmoldeekin, bizi-giroarekin. Aspaldiko lege eta garaiekin uztartu izan da gehienetan euskara.

### **Izaera jakin bati lotua: baserriari lotua.**

Euskara nekazal munduari estuki lotua irudikatu izan da aspalditik. Ikusi besterik ez dago gure literaturako pasarteak, gure egun berezietako janzkerak eta gure iruditegia.

### **Erabaki politikoa, alde zein kontra.**

Hizkuntza indarberritzeko hautua egitea erabaki politikoa da. Plangintza instituzionala, edozein delarik ere, funtsean erabaki politikoa da. "Laissez faire, laissez passer" printzipioa aplikatzea ere, erabaki politikoa da, zeren dagoen egoera mantentzeaz gain, egun dauden erabakiei indar ematen dielako. Ez egitea egitea da.

### **Espainiako inposaketaren kontrako posizionamendua.**

Euskara ikurra izan da askotan. Eguneroko mintzajardunerako tresna baino gehiago, espainiako politikaren aurkako beste ezaugarri bat gehiago, errebindikazioa. Zapaldua izanaren kontzientzia oinarri izan duena eta eraldaketa berri baterako aldagai sinbolikoa.

### **Gizarte eta kultura batekin lotutako identitatea**

Euskara gizarte jakin batekin ikusi izan da lotua. Hizkuntza kode huts baino areago, etnokultura baten espresioa ere bada. Hizkuntza horretan garatu izan dira hainbat ezaugarri kultural eta sozial. Horiek guztiek identitate jakin bat ematen diote komunitate horretako partaideari.

### **Kulpabilizazioa: euskara ez da galtzen ez dakitenak ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik.**

Euskaldunarengan jarri da bere hizkuntzaren erantzukizuna. Bere da, hizkuntza hori salbatzearen edo galtzearen arduradun nagusi eta bakarra. Horrek euskal hiztuna gainzamatzeaz gain, erdaldunaren erantzukizuna arindu edota salbuetsi egiten du. Ez ditu kontuan hartzen hizkuntzaren erabilerak eragiten duten aldagaien konplexotasuna.

### **Ardura besteengana botatzeko joera: Administrazioa, politikoak, etorkinak,...**

: Administrazioa, politikoak, etorkinak,...

Euskararen erabileraren bilakaeran aldagai asko izan dira eragin dutenak. Hala ere, sarri askotan norberaren arduraren zatia hartu ordez, besteengan jarri izan ohi da bilakaera eta norberaren egoeraren ezintasuna: administrazioaren utzikierian, politikoen erabakietan, etorkinen eraginean eta antzeko aldagaietan. Horrek bakoitzari dagokion zatia zuritzea du sarri helburu.

### **Hizkuntza ederra, hizkuntza polita, jaso eta gorde beharreko altxorra**

Zaharra izatearen ekarpenari, beste hainbat dohain atxiki zaizkio euskarari. Hizkuntza garbia (biraorik gabea), ederra (hitz kuttunez eta esapide jatorrez hornitua), ahoskera polita duena... sekulako altxorra beraz, ondo jaso(bere horretan), higaduretatik zaindu eta kutsadura guztietatik gorde behar dena.

Mugatzaileak, oztopatzaileak, agortua, "mitoak"; gainditu behar ditugunak...

Eustekoak; nahiz eta eraldatu edo birformulatu behar....

Orain arte, eta gaur egun, indarrean dauden hainbat ideia edo aurreiritzi ez dute oinarri zientifiko sendorik eta sarritan oso barneratuak daudelako, euskararen ezagutza eta erabilerarako mugatzaileak bilakatzen dira. Horien funts eza begibistan jartzea beharrezkoa izango da.

Zein identifikatuko genituzke ideia, aurreiritzi edo "mito" oztopatzaile bezala?

- Hizkuntza zaila. Bere baitako zailtasunak egon daitezkeen arren, zailtasun horiek gehiago dira ezaugarri soziolinguistikoei dagozkienak (hizkuntza horren bizindarra, transmisioaren nolakotasuna...) berezko aldagaiei baino.

- Gauza ez izatea zeregin batzuetarako. Egokituta ez egotea gaur egungo bizitzarako. Ezaguna da hizkuntza batzuen baliagarritasuna zalantzan jarri izan ohi dela gaur egungo zeregin batzuk betetzeko, zientzia egiteko etab. Edozein hizkuntza da baliagarria garapenerako aukerak ematen bazaizkio. Bere baliagarritasuna edo eza ez dago hainbeste bere barneko egituretan, kanpoko aldagaietan baizik (garapenerako izan dituen aukeretan)
- Euskara hizkuntza isolatua. Euskara garbi, kutsatu gabe egon izanaren ideia. Beste edozein hizkuntza bezala, euskara ere harremanetan, ukipenean, egon da beste hizkuntzekin. Haietatik maileguak etengabe hartu ditu eta bere maileguak ere utzi ditu beste hizkuntzetan.
- Aldatu ez den hizkuntza. Euskara bere horretan mantendu delako ideia nahiko errotua dago. Betidanik era berean hitz egin balitz bezala. Horrek ez du sostengurik. Hizkuntza bizia izaki, etengabe aldatzen doa, behar berrietara egokituz, maileguak hartuz, hitz zaharrak berregokituz, berriak sortuz...

Gaur egun indarrean dauden ideia, aurreiritzi, paradigma horietatik, zein jo beharko genituzke agortuak edo oztopo direla kontsideratuko genituzkeenak? Zein dira zertxobait birformulatuz eutsi eta hedatu beharko genituzkeenak?

## Egun indarra hartzen doazen kontzeptu berriak

### **Framing berria (Mtnez Luna). H ekologia. Gizarte Erantzunkizuna (Marko)**

Hainbat ahotsek adierazi dute orain arte nagusiki baliatu dugun diskurtsoak agortua dirudiela eta horretan oinarritutako praktikek goia jo dutela. Adierazle gisa erakusten dute azken ikerketek erakusten duten erabilera mailaren estankatzea

Iñaki Mtnez de Lunak, esaterako, esan ohi du azken hamarkadetan euskararen inguruan bi diskurtso edo “framing” nagusi izan direla aldarrikatzailea eta uzkurra eta aurrera egingo badugu “framing” horiek gainditu behar ditugula.

Diskurtso berri bat non euskararekiko ikuspegi eta bizipen ezberdinek bat egingo duten, gutxieneko zenbait puntutan behintzat. Batera bilduko dituen jatorrizko euskaldunen, euskara bereganatu dutenen eta hiztun berrien esperientziak, bizipenak, espektatibak eta beharrak

“Framing” berri hori eraikitzeke orduan Hizkuntzaren Ekologia<sup>4</sup>ren ikuspegia interesgarria izan daitekeela diote. Horien iritziz, ekologiak baliatu ohi dituen kontzeptuak eta lan-proposamenak eta –tresnak Hizkuntza Normalizatzeko lanetan lagungarri suertatu daitezke. Besteak beste hauek:

- Kontzeptuak
  - Oreka eta orekaren bila aritzea
  - Arnasguneen beharra
  - Erresilientzia (pertsonek edo talde batek zoritxar edo ezbeharrari, trauma edo emozio-minari aurre-egiteko duen gaitasuna)
- Gure esku-hartzea oinarritzeko printzipio baliagarriak
  - Globalki pentsatu, tokian-tokian ekin
  - Berdintasunaren printzipioa (hizkuntzen eta hiztunen aukera eta eskubideen berdintasuna)
  - Prebentzioa
  - Subsidiaritatearen printzipioa (bertako hizkuntza “lokalean” egin daitekeena ez beste hizkuntza “globalean” egin) eta funtzio eksklusiboena (funtzioak esleitu bertako hizkuntzan espezifikoki garatzeko)
  - Erresponsabilitate konpartitua eta berezitua (egokitua)
- Tresnak

<sup>4</sup> 70. hamarkadan erabiltzen hasi zen terminoa (Haugen 1972) eta ikuspegia - Hizkuntzen aniztasuna, biziraupena, berdintasuna. aztertzen eta definitzen ditu.. Hizkuntzak zelan galtzen eta berreskuratzen diren azaltzen saiatzen da

- Kontrol teknikak: inpaktu-azterketak
- Planifikazio-teknikak
- Sustapen-teknikak: gizarte-erantzukizunarekin (Definizioa kopiatu, Marko) lotuta

Komunitatearen Hizkuntzarekiko Gizarte.Erantzunkizuna honela definitu zuen Iñaki Markok:

- “Gizarte edo komunitate jakin bateko kideok, norbanako gisa edota giza-talde bateko partaide giza, elkarren artean eta gizartearekiko dugun betebeharrak edo konpromisoa”
- “Komunitatearen kide garen pertsona eta gizarte-talde ezberdinek, legeek eta arauak agintzen dutenaren haratago, komunitateren ekosistema osoaren garapen jasangarri eta harmonikoarekin dugun Gizarte Erantzukizunaz kontzientzia hartzea, eta bakoitzak, ardura dugun era guztietako ‘gizarte-instituzioetan’ positiboki eragitea”.

Ekologiaren ikuspuntuari jarraikiz:

- Hizkuntzak testuinguru jakinetan kokatzen diren entitateak dira.
- Beren eguneroko existentzia eta garapena ekosisteman parte hartzen duten elementu ezberdinen arteko oreka dinamikoaren menpe dago.
- Euskararen kasuan, bere testuinguruko ekosistema Euskal Herriko espazioan kokatzen den komunitatea da. Ez dauka besterik munduan.

### Hautu pertsonala. Jarraidura-irakiera. (Sarasua)

Gure gizartean euskaraz aritzea, erabiltzaile aktiboa izatea (Euskaldun Euskaltzalea5 izatea) hautu bat da. Hautu kontzientea. Haizearen kontrako hautua askotan, gainera. Eta, zenbaitetan, nekeza Baina nahimen hori elikatu egin behar da, hautu hori egiteak balio-erantsiren bat ere eduki beharko du

Zein izan daiteke euskaldunon kasuan (eta gazteen kasuan bereziki) balio-erantsi hori

- Hautua (nekeza izanda ere) erronka eta abagune eder gisa irudikatzea<sup>6</sup>. Abentura honetan parte hartzera gonbidatuta egotearen pribilegio gisa
- Iraupenaren katean parte hartzearena. Bada belaunaldi berriek ere abagune hori daukare, iraupenaren katean begi berri bat egitearena: aurrekoengandik jasotakoari jarraidura emanaz eta --aldi berean— irakidura mugimendu berri bat eginez.
- Eta urrats esanguratsu bat lortuz, euskara izatea belaunaldi osoaren hizkuntza komuna: denona eta haien artekoa

### Hizkuntza-identitatea

Azpimarratu izan da identitateak (hizkuntza-identitateak) euskaraz aritzeko hautu pertsonal horrekin duen lotura (zenbaitetan eragile nagusienetako bat dela aipatu izan da

Nola definitu hizkuntza-identitatea? “Pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea”(Soziolinguistika Hiztegia).

Hainbat adituk hizkuntza identitatea erabileraren gako nagusitako gisa aipatu izan du. Eta hala da asko eta askotan

Baina identitatea eta erabileraren arteko erlazioa norabide bikoitzekoa izan daiteke. Izan ere hiztun askok euskaraz aritzeko hautu pertsonala egiten dute, beren hizkuntza-identitateak eraginda (jokaera beren jarrerarekin koherente izan dadin). Eta beste batzuk, berriz, hizkuntza batekin identifikatzera ailegatzen dira erabileraren poderioz: hizkuntza horretan diharduten

<sup>5</sup> Euskaldun euskaltzalea: “ahal duen guztietan euskaraz harduteko hautua egiten duena: bere etxean, lagunartean, hedabideak hautatzerakoan, ezezagunei lehen hitza egiterakoan, e.a.” Hartsuaga, J.I.: *Euskararen egoerari irizten*. Hiria

<sup>6</sup> Lorea Agirrerren hitzetan: “Uste dut hizkuntza zahar baina berri honek eskaintzen duen gauza onenetako bat eremu berrietan sartzea, esperimintatzea eta mundu berri bat hizkuntza horretan eraikitzeke ematen duen aukera dela”. Edo Ajel Lertxundirenetan: “Euskarak eskaintzen dizkidan mudunduak eta aukerak ez didkit gaztelerak eskaintzen: egiteko dagoen guzti hori”

harreman-sare eta jardungune ugaritan aritu direlako eta horiekin identifikatzera ailegatu direlako.

Identitateari dagokionez ere garai konplexuetan bizi gara.

Alde batetik, askotarikoak dira, gure artean, identitateak; izan ere jatorri, ibilbide eta bizipen askotariko pertsonak bizi gara elkarrekin egungo euskal jendartean.

Bestalde, gutako bakoitzaren identitatea ere konplexua da (askotarikoa hainbat adituren hitzetan) zenbait elementuk edo ezaugarri osatzen dute identitate hori (etnia, jatorria, erlijioa, kultura, hizkuntza...); era, proportzio eta intentsitate ezberdinetan konbinatuta.

Denok identitate berdintsua izatea litzateke helburua? Hala denok konpartitzea hainbat identitate ezaugarri, bakoitzarenean intentsitate edo lerrun ezberdina hartzen badute ere? Apustua hau izan zitekeen:

- Euskara denon identitatearen osagaia izatea. Denok konpartitzen dugun osagarria
- Norbanako bakoitzaren identitatea toki edo maila ezberdina hartzen badu ere

### **Euskara H komuna (plazakoa, gure artekoa). Identitea anitzak, kideza sentimentu askotarikoak. Kohesioa eta ekitatea. Hizkuntza eta gizarte-integrazioa. Gizarte-sareetan integratzeko aukerak.**

XXI mende hasierako garai konplexu eta askotariko honetan, jendarte kohesionatua eraikitzea ezinbestekoa dugu<sup>7</sup>. Aniztasuna aberastasuna da, bai. Baina gizarte bat (eta ez irla isolatuen artxipelagoa) izango bagara zubiak behar ditugu; osagai komunak, kohesio-emaleak; ardatz egituratzaileak. Gizarte bat izateko erreferentzia eta osagai konpartituak behar ditugu. Eta elkarren artean komunikatzeko hizkuntza komuna.

Eta hizkuntza horietako bat izan daiteke; euskara izan daiteke kohesioa eraikitzeko abagunea eta giltzari<sup>8</sup>.

Hizkuntza “bizitzeko” modu asko egon daitezke; ezberdinak haien artean baina bateragarriak (batera bizi daitezkeenak). Enfokearekin asmatzea klabe izan daiteke

Guretako askotarako euskara da EHko berezko hizkuntza, “gure-gurea” hizkuntza. Gure lehenengo-hizkuntza (ez agian gure biografian, baina bai gure identitatean)

Hola sentitzen dugu batzuek, baina bizipen horrek balioa al du denontzako? Zenbaitez euskara “hemengo” hizkuntza dela onartuta ere, ez dute bere “identitate-hizkuntza” sentitzen eta zenbaitek ezta “berea” ere

Nork “bere hizkuntza” bat edo bestea dela sentituta ere, denok bat etor gintezke asmo honetan:

Euskara izan dadin euskal gizartearen hizkuntza komuna, denon artekoa. Esparru publikoan denon artean erabil dezakeguna, nork bere bizitza pribatuan eta harreman-sare gertuenetan “berea” erabiltzearen alde egiten badu ere.

Euskara denon hizkuntza eta denon arteko hizkuntza komuna izatearen asmo hori gauzagarria da belaunaldi berrientzat, gehien-gehienek izango baitute gutxieneko gaitasun maila (ulertu behintzta egingo dute). Eta are gehiago espazio publikoen hizkuntza komuna bihurtzea haiei egingo die mesede, beraien HKG garatzen jarraitzeko abagune (trebaleku) izango baitute

*Egoera berri honetan **ardatz egituratzaileak** behar ditugu eta hizkuntza horietako bat izan daiteke: ez du zertan **denek beti** erabiltzen dute hizkuntza izan, baina **bai denek ezagutzen dutena eta plaza publikoko hizkuntza**, hizkuntza komuna. Vicenç Villatoro*

<sup>7</sup> Kohesio eza izan daiteke XXI gizarte askotarikoen arazo nagusia, Fragmentazio (bakantasuna eta isolamendua) arriskua bada, ardatz egituratzaileak behar dira

<sup>8</sup> Hizkuntza (eta kultura) izan daitezke osagai “konpartigarrienak” (beste zenbait osagai baino “konpartigarriagoa” izan daiteke). Beste zenbait identitate-osagai ez bezala, hizkuntza edo kultura berri bat ikasi eta zeureganatu dezakezu, eta ez du eskatzen ordura arte zenituenak bazter uztea edo uko egitea. Hizkuntza eta kultura gehitu/pilatu daitezke; jatorria, etnia, erlijioa... berriz ez

## Begirada aldatu: Hizkuntzatik Hitzunera... etab

Hizkuntzari buruzko enfoke bateragarriak eraikitzeko komenigarria izan daiteke: begirada aldatzea, azentua ohiko tokietan jarri beharrean, beste zenbait tokitan jartzea. Hone hemen hainbat proposamen:

Euskararen defentsan baliatu dugun diskurtsoak jatorrizko euskaldunen ikuspegiari eta bizipenei erantzuten die, batik bat.

- Hizkuntzatik Hitzunera

“Hizkuntzaren alde” aritzea lehenetsi beharrean, hitzunon behar eta espektatibei (ere) erreparatzea. Eta hitzunok hizkuntza-elkarbizitza egokirako ditugun beharei

- Hizkuntza berreskuratu vs Hizkuntza irabazi?

Nola definituko dugu gure lanaren xedea? Zein parametrok du balio zabalagoa eta oro-hartzaileagoa: hizkuntza-berreskuratzearena ala hizkuntza-irabaztearena. Lehenengoak, batik bat, jatorrizko hitzunen bizipenei erantzuten die (edo euskal identitatea oso sendoa dutenenei).

Euskara bereganatu dutenen esperientzia (baita hitzun berriena edo euskal hitzun izateko bidean daudenena ere), berriz, hizkuntza irabaztearena izan da.

Hauek irabazi egin dute: adierazteko modu berria, harreman eta gune berrietarako sarbidea, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko aukerak

Baina, hitzun berriek ez ezik, hitzun-elkarteak ere irabazi egin du horrekin: hitun berriak irabazi ditu, komunitatearen etorkizuna ziurtatzen dutenak, eta hizkuntzari bestelako azentu eta ñabardurak ekarri dizkiotenak

- Hizkuntza-aldatu vs hizkuntza-gehitzea (eranstea, gaineratzea...) eta hizkuntza-aniztasun pertsonala kudeatzen jakitea (ikastea), egoera sozialaren arabera (hizkuntza komuna espazio publikoetan baliatuz)

Zein da gure proposamena? Erdaldunek hizkuntza alda dezaten eta beren jatorrizko hizkuntzari uko egin diezaioten (bere izaera alda dezaten, haien borondatea ez bada ere) ala hizkuntza berri bat (denona izango dena) haien errepertorioan gehitu dezaten? Hizkuntza berria bereganatzea eta hizkuntza-aniztasun (aberastasun) pertsonala –ohiko gizarte-egoera eta –sareetan-- kudeatzen jakitea xede erakargarria da edozeinentzat

- Hizkuntza-integrazioa vs Hizkuntza bereganatzea

Nola aurkeztu prozesu hori “**integrazio-prozesu**” gisa, non hitzun berria objektu bezala irudikatzen den ala “**bereganatze-prozesu**” gisa non hitzun berria subjektu aktiboa den eta bere egiten duen harrera gizartea eta honen hizkuntza? (eta haiekiko harreman afektibo iraunkorra ezartzen duen)

- Hizkuntzaren biziraupena vs Hizkuntzaren ongizatea

Hizkuntzaren biziraupenaz hitz egin dugu askotan. Hori al da gure xedea ala hizkuntzarentzako estatus eta erabilera maila ona lortzea? Eta hitzunontzako egoera “erosoa” (natural-normal-... Hala bada zein metafora da egokiagoa: biziraupenarena ala hizkuntzaren ongizatearena. Zeinek du baterabiltzeko indar gehien? Zeinekin egingo dute bat errazago euskara jatorrizko hizkuntza ez dutenek?)

- Sakrifizioa edo nekea vs ahalegin sariduna

Biziraupena, berreskuratzea, lehengoratzea erresistentzia garaian sortutako kontzeptuak dira, legitimitatea eman eta atxikipena eta kontsentsua ekartzen zutenak. Eta sakrifizio zein nekearen ideiarekin oso lotuta daudenak.

Gaur egun hitz egiterakoan, eta, bereziki, gazte belaunaldien zein hitzun berrien irudikapenekin eta bizipenekin bat al datoz?, .Proposatzen zaien ahalegina irudikatzeko egokienak al dira? Ez al zaie hobe egokituko saridun ahaleginaren ideia? Hitzun berriari –edo gazteari-- aukera eta gune berriak irekiko dien ahaleginarena alegia

## Maitasuna, bizipenak, subjektibotasuna, barne sentimenduak.



## **Eraldatzea eta identitate**

### **Eraginkortasuna eta balio erantsia. Gogobetetzea, satisfakzioa.**

#### **Lan mundurako irekitzen dituen ateak (Gizarte adostasuna, Gizarte-eskakizuna, Gizarte-sari sistema).**

Gaur egun, Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialak jakiteak “plus” bat eransten dio edozein herritarri. Lan-munduan areagotzen ari da euskararen ezagutzari ematen zaion balioa. Enpresa askotan euskara-planak abian daude eta askotan euskara jakitea beharrezkoa da (irakaskuntza, administrazioa...). Euskararen eskakizuna gizartean errotzen doa. Gure gizarteko sari sisteman euskara jakitea indartzen doa.

#### **Diskriminazio positiboaren printzipioa: ahula indartu beharra**

“ laissez faire, laissez passer” printzipioak egungo “statu quo”aren ezberdintasunak areagotu besterik ez ditu egiten, indartsua gehiago indartuz eta ahula gehiago ahulduz. Gizarte justuago baten xedeak ahulari babes berezia eman beharra ezinbestekoa egiten du, neurri orekatzaileak hartuz. Halaber, hizkuntza ekologiaren ikuspegiak diskriminazio positiboaren printzipiora garamatza: ahulenak, txikiak, gutxi direnak laguntzera eta babestera.

# Euskalgintzarako eta Eskolako HN lanerako giltzarriak (Nola kokatzen da hori eskolan)

## **Eskolak XXI mendeko euskal herritarrari eskaini beharreko hezkuntza zerbitzua: hizkuntza-formazioa**

Ikasleei **eskolak eskaini behar dien prestakuntza integralean ardaraztea** da gure proposamena.

**Honela definitu** genezakeen HN lanaren xedea

- **XXI. mendeko euskal gizartean** (duintasunez) bizitzeko, **herritar oso izateko**, egungo gazte batek beharko dituen **hizkuntza-gaitasun (kompetentzia) askotarikoak** (zentzu zabalean ulertuta); **hots, euskaren erabilerarekin erlazionatutako gaitasunak eta trebeziak: komunikaziorako gaitasuna, hizkuntza-elkarbizitzarako gaitasunak... Gazte guztiek euskaraz egiten ondo ikastea eta egoera askotarikoetan euskara baliatzeko trebetasunak (linguistikoak, jarrerazkoak, sozialak eta konbibentzialak) garatzea**

## **Eskolako Hizkuntza Normalkuntza lanaren zentzua**

Hizkuntza Normalkuntzaren inguruan Hezkuntza Komunitateko sektore guztien artean benetako adostasuna lortzeko biderik eraginkorrena HN lanaren zentzuan bat etortzea iruditzen zaigu. Hots, HN lanari buruzko adostasuna zergati eta zertarako konpartituetan oinarritzea (begirada konpartitzea, zentzua konpartitzea...). Zentzua konpartituz gero, adostasuna sendotuko da eta ekintzetan bat etortzeko bermea izango dugu

**Goian proposatutako xedearen definizioa sektore guztiontzat konpartigarria izan daiteke.**

- **Bai irakasleentzat, adostasuna** irizpide profesionalean oinarritzea proposatzen baita. HNaren alde lan eginez honako emaitza hauek bilatzen ditugu-eta::
  - Oinarrizko gaitasunen garapena (komunikaziorako gaitasuna ez ezik, elkarrekin bizitzeko eta egungo euskal gizartean bizitzekoa),
  - Ikasleen inklusioa, integrazioa, ekitatea,
  - Gizarte-kohesioa, gizarte-elkarbizitza, eskubide berdintasuna (baita hizkuntza eskubideetan ere)...
- **Familientzat:** seme-alabentzat aberasgarria ez ezik, behar-beharrezkoa ere baita; bai prestakuntza pertsonalari eta profesionalari zein gizarte-integrazioari begira
- **Eta ikasleentzat ere:** haien proiektu pertsonalerako (bizitza-, ikasketa- zein lanbide-proiekturako) oso lagungarria

## **Indartu beharreko lan ildoak:**

- Hizkuntza balioetsi:
  - Hizkuntzarekiko hautemateak: balioa, erabilgarritasuna
  - Hizkuntza aurreiritziak eta estereotipoak aztertu
- Hizkuntz bizipen baikorrak
- Hizkuntzaren eta hiztunaren irudikapena
- Hizkuntza autoirudia, autoestimua, gaitasunaren sentimendua
- Hizkuntza-elkarbizitzarako trebetasunak garatu
  - Hizkuntza "korapiloak" eta "gatazkak" aztertu eta jokaera alternatiboak bilatu
  - Hizkuntza jokabide proaktiboak )Jokaera intregartzaila
- Hautu pertsonala sustatu

Erabiltzaile aktibo izatera heltzeko ikasle batek beharko lituzkeenak zerrendatu ondoren, horietara ailegatu ahal izateko pista batzuk aipatuko ditugu:

Hauek dira euskaraz egiteko behar dituenak:

- Gaitasun/erraztasun nahikoa izan, eta...
- Egiten ahal duela pentsatu, hots:
  - Bere burua gai ikus dezan

- Aurrean dituen solaskideak ere gutxieneko gaitasuna (ulertzeko beste, gutxienez) badutela pentsatu
- Egoera horretan euskaraz aritzea egokia dela iritzi (Ez dela, friki, tokiz kanpoko, edukazio txarrekoa...)

- Euskaraz egin nahi izan
- Euskaraz aritzeko beharrezko trebetasun pertsonala eta sozialak izan (

Eta hauek, gure iritziz, egungo gazteen artean indartzea komeniko liratekeenak

- Gaitasun nahikoa garatzeko (ziurtatzeko)
  - Input asko, askotarikoa eta aberatsa
  - Erabiltzeko aukera nahikoak eta egokiak
    - Egoera asko, askotarikoak gero eta konplexuagoa
    - Parte hartzea erraztea, dinamizatzea, eustea eta laguntzea,
  - Ikasteko egoerak
    - H arloan komunikazio-trebetasunen garapenari erabateko lehentasuna ematea
    - HTBn sakontzea
    - Gainerako arloetan ere interakzioa eta ikasbide komunikatibo kooperatiboak baliatzea eta arloetako berariazko testu-motak eta trebetasunak lantzea
- Hitzunekiko eta hizkuntzarekiko hautemateak optimizatzeko
  - Haien hizkuntza-autoezagutza eta -autokonfiantza garatzea
  - Auzokoena
  - Hizkuntzaren gizarte-balioaren irudia indartzea: Uste ustelei aurreiritziei, **estereotipoei aurre egitea eta hizkuntzaren erabilgarritasunaren, indarguneen eta aurrerabideen kontzientzia garatzea...**
  - Ohiko harreman-sareetan eta egoeretan euskaraz aritzea egokia dela sinestea. (Are gehiago, askotan besteentzat onuragarria ere)
- Euskaraz aritzeko nahia sustatzeko eta erabakia akuilatzeko
  - Nahimena elikatu: hautuaren aldeko euskarriak bilatu (bizipen baikorrak, balio erantsia, irabaziaren eta esplorazio-abenturaren narrazioa...)
  - Hizkuntza erabiltzearen garrantzia zeta zentzuaz hausnartu eta horri buruzko erabaki kontzientea landu
  - Erabaki pertsonala ez ezik talde-erabakiak ere har ditzaten eragin: zentzuaz, garrantziaz. aldeko arrazoiez hausnartu; akordioak bilatu. Hots, haien arteko *hizkuntza-elkarbizitzaz* hitz egin, arau esplizituak adostu...
- “Bestela” jokatzeko beharrezko trebetasunak (pertsonalak eta sozialak) garatzeko
  - Ohiko egoeretan ematen diren Hizkuntza gatazka eta korapiloetan hitzunek ditugun zalantzak, zailtasunak zein menpekotasunezko jokaerak kritikoki aztertu, eta bestelako jokaeren bideragarritasuna baloratu
  - Jokaera alternatiboak (proaktiboak --asertiboak, ausartak--, integratibo-integratzaileak, komunikazioa asimetrikoa...) entseatu eta praktikatu (rol-jokoak...)
  - Nork bere erabilera-proiektu pertsonala diseinatu, martxan jarri eta ikuskatu
  - Taldearen erabilera-proiektua diseinatu, martxan jarri eta ikuskatu
- Irakasleon jokaera hizkuntza interakzioan (agindu, zuzendu...)
- Naturaltasuna.

## Gure lanerako inplikazioak aldaketak (gure lanean nolako eragina)

- Goian aipatutako lan ildo horietan sakontzea izan daiteke datozen urteotako HNPen lehentasunetako bat
- Horien lanketari eskolako ohiko lan esparruetatik heltzea gomendagarri;; curriculumak horretarako eskaintzen dizkigun euskarriak baliatuz. Izan Hizkuntza Arloan (ikus 5. eduki multzoa. *Hizkuntzaren gizarte dimentsioa*), izan Ingurune arloan (LHn) edo Gizarte Zientzietan (DBHn), edota herritartasunean edo etikan. Baita Tutoretzan (*.Garapen pertsonalean zein besteekiko harremanetan*), elkarbizitza proiektuan (hizkuntza-elkarbizitzarako oinarriak), kultura-aniztasunaren inguruko lanean...

Eskolak lagundu dezake hautu pertsonal hori egiten, (indartu beharreko lan ildoetara)

- nahimena elikatu
  - Hausnarketa sustatuz (kontzientzia landu) (heziketa SL
  - Erabaki pertsonala eta kolektiborako bidea eginez. Proiektu pertsonala et atalde-proiektua
  - Balio-erantsia ikusararaziz
- Trebetasunak garatu

Nola ikusten gaituzte besteek? Lankideek. Gurasoek. Ikasleek: Gainontzeko euskaltzaleek

**HNTa**

**HNAT**

**Eskolako eragileak**

Nola konpartitu, sozializazioa.